

**EUSKARAREN ARIGUNEA**

2022-11-16 Lehendakaritza 16-11-2022

Lehendakariaren hitzaldia

Egun on eta eskerrik asko gurekin izateagatik!

Hasteko eta behin, eskerrik asko Helene eta Xabier.

Mendi bat igotzen dugunean bezala, geldiene bat egin, arnastu eta hausnartu egiten dugu, gailurrera bidean jarraitzeko.

Bide horretan, gaurko eguna garrantzitsua da, eta zuen parte hartzea eta ekarpena eskertzen ditugu.

Bide horretatik aste honetan aurkikuntza izugarri bat ezagutu dugu:

“Irulegiko eskua” izeneko brontzezko irudian lehenengo euskarazko hitzak agertu direlako: “sorioneku”.

“Sorioneku” gaude eta azken 22 mendeetan egindako ibilbideari jarraipena emateko prest.

Gogoan dut, duela bost urte, Kike Amonarrizekin lehen saio bat izan genuela.

Orduan ezarri genuen, helburu gisa, Lehendakaritzan euskara lan hizkuntza bihurtzea.

Hura zen orduko nahia.

Gaur, zuotako bakoitzari esker, beste egoera batean gaude: aurrera egin dugu euskara lan hizkuntza bihurtzeko bidean.

Helenek aurkeztu duen esku-orrian, ondo jasotzen den moduan, ez da bide erraza izan; izan ditu bere gorabeherak, baina asmoak merezi izan du.

Euskararen erabilpenak, bai ahozkoak eta bai idatzizkoak nabarmen egin du gora Lehendakaritzan.

Euskararen presentzia nabarmen areagotu da.

Bi datuk baieztatzen dute hori:

-2017an aurrez aurreko ahozko jardunen %33 euskaraz egiten genituen, orain %54era iritsi gara...

-bidalitako emailetatik %47 euskaraz idazten genituen, orain %73era iritsi gara.

Eginiko bidearen islaren bi adibide dira.

Bide honetan asko lagundu digu BIKAIN lan metodoari eta helburuari jarraitzeak.

Orain ere, Euskaraldiari atea zabaldu eta Lehendakaritza arigune bihurtuko dugu.

Hauxe eskatzen ziguten, hementxe bertan, Jon Sarasuak eta Pili Kaltzadak.

Asmo horretan irautea berretsi digu gaur Xabier Euzkitzek ere.

Alegia, Lehendakaritza euskararen arigune izatea.

Pauso sendoak eman ditugu bide horretan.

2019 urtean zilarreko BIKAIN ziurtagiria lortu genuen, bi urteko lanaren ondoren.

Ez ginen konformatu.

Aurrera jarraituz, urrezko BIKAIN ziurtagiria jaso genuen 2021ean.

Gutako bakoitzaren lorpena izan da hori.

Talde lanaren fruitua, auzolanaren adibidea.

Ahalegin horretan jarraituko dugu aurrerantzean ere.

Erronka berriei aurre eginez, jarraituko dugu bidea egiten.

Gailurrera iristean, ortzimugak beste gailur berriak bistan jartzen dizkigu.

Gaurko saioan argi geratu den moduan, gailur hauek egiteko bi erronka ditugu:

-Lehenena, lortutako emaitzei eustea, atzera-bueltarik gabeko urratsak emanez; eta

-Bigarrena, euskaraz egin daitekeena euskaraz egitea.

Azken honetarako ariketa paregabea dugu Euskaraldia.

Etzi hasiko dugu eta guztion erronka izango da.

Beraz, Aho Bizi eta Belarri Prest ariketa egitera animatzen zaituztet, hemen Lehendakaritzan ere bai.

Ni Aho Bizi izango naiz. Hitzez ekiteko garaia heldu da!

Eskerrik asko!